

BALEIKE

IMANOL AZKUE IBARBIA

MUGARRIEN INGURUAN BUELTA BAT



**Benetako
naturgunea Zumaienan:
jolastu eta pentsatu**



**Basoa
ideien
erlauntza
ere
bada**


zumaiena



BALEIKE 305

2020-URTARRILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 4 | Hitz tantak Dorleta Agiriano Lai
<i>Felix Balerdi</i> | 24 | Bazkidetza |
| 6 | Izpiak eta hizkiak Arnaitz Rubio
Aprea
<i>Aitziber Garmendia</i> | 26 | Plazan bazan |
| 8 | Hainbat aburu Felix Zubia
<i>Koronabirusa, gabon jaien atarian</i> | 29 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Zure besoak behar ditu eta zure besoetan behar duzu</i> |
| 9 | Errematea Iosu Alberdi
<i>Egia</i> | 31 | Zientzia eta ingurumena Josu
Narbarte Hernandez
<i>Urolaren ertzeko basadiak eta erriberak</i> |
| 11 | Elkarriketa Maria Maya
Manterola
<i>Imanol Azkue Ibarbia: Mugarrien eta muga lerroaren inguruan dakiguna idatzi eta edozeinen eskura jarri nahi dugu</i> | 36 | Orduan bai Imanol Azkue Ibarbia
<i>Bidean ahaztuak</i> |
| 16 | Erreportajea Juan Luis Romatet
<i>Rocka txerto moduan</i> | 43 | Agenda |
| 20 | Erretratua Onintza Lete Arrieta
<i>Ana Egaña, irakaslea</i> | 44 | Literatura Antton Peñalba
<i>Umorez eta intrigaz jositako memoria ariketa</i> |
| | | 45 | Nire txanda Leire Arano
<i>Kilkerrak, txanpiñoiak eta kareluak</i> |
| | | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Stan</i> |

BALEIKE

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta

Imanol Azkue Ibarbia
Dorleta Agiriano Lai
Argazkilaria
Arnaitz Rubio Aprea
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
publizitatea@baleike.eus
Administrazio arduraduna
Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

Felix Balerdi

TESTUA: DORLETA AGIRIANO LAI

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Felix Balerdi Beasainen jaio zen 1942an, baina duela 11 urtetik bizi da Zumaian. Autoen mekanikari-elektrikari izandakoa da, eta ogibide horrek izan du, noski, lotura estua haren pasioarekin: autoak. Pasio horren erakusle dira, hain zuzen, garajeen gordeta dituen bi ibilgailu kuttunak: 1956an ekoiztutako Nash Metropolitan bat, gaur egun Espainiako Estatu osoan ikusi ahal izango den bakarretakoa, eta 40 urte bete dituen Mercedes bat.

Bi automobil dituzu gaur egun, tartean, 1950eko hamarkadako Nash Metropolitan bat. Noiztik duzu auto hori?

Orain dela hiruzpalau urte erosi nuen, semearekin batera. Horretara propio joan ginen hegoaldera, Alacant ingurura. Izan ere, lehen zaila bazen, gaur egun benetan zaila da auto mota hori hemen topatzea. Nik dudanarekin batera, hiru omen dira Espainia osoan dauden Nash Metropolitanak. Dena den, duela ia 60 urte ere izan nuen halako beste auto bat.

Bakan batzuk baino ez zituzten Espainiako Estatura bideratu. Non erosi zenuen zuk auto mota hori aurreneko aldiz?

Beasainen, esan bezala, duela ia 60 urte. Bitxia da, baina Beasaingo industrialari oso garrantzitsu batena zen autoa. Madrilen erosi zuen hark, eta nik hari erosi nion. Autoa ikusi nuen eta gustatu egin zitzaidan, hain zen arraroa eta polita. Horregatik erosi nion.

Ia sei hamarkada geroago, gaztetan izandako auto berdina erosi duzu, beraz. Zergatik?

Ezkongabea eta oso gaztea nintzenean izan nuen nire lehenengo Nash Metropolitan, eta esanahi handia du niretzat auto horrek; oroitzapen askorekin lotzen dut. Gogoratzen dut atzetik izaten nituela emakume guztiak, baina batez ere burura datorkit gaur egun nire

emaztea denarekin ibiltzen nintzela autoan eta Azpeitira joaten ginela.

Oroitzapen horiek nolabait izateko erosi nuen berriro mota horretako auto bat bat. Orain, gaztea nintzenean neukan auto berdina daukat. Baina benetan nahi nuke adin hori ere eduki ahal izatea, askoz hobe izango litzateke. Hori ere erosi ahalko banu... Baina ezin dut.

Hurbiletik ezagutu duzu auto hori, urte luzez. Zein da ibilgailu horren historia?

Nik irakurri dudanaren arabera, 1954 eta 1962 artean ekoitzi eta saldu zituzten, nagusiki, Amerikako Estatu Batuetan. Ingalaterran produzitu zituen Austinek. Antza, 7.000 unitate izan ziren Europa osoan, eta gainerakoak AEBetara eta Kanadara eraman zituzten. Niri esan zidaten lau baino ez zirela heldu Espainiara.

Antza, garai hartako AEBetako presidenteak ez zuen begi onez ikusten emakumeek, haurrak eskolara eramateko, 6-7 metroko autoak erabiltzea, ehun kilometroko 30 litro gasolina kontsumitzen zituztenak. Horregatik, auto txiki bat sortu beharra zegoela esan omen zuen. AEBetako ekoizleak ez ziren ausartu auto horiek egitera eta, dirudienez, Ingalaterran ekoizteko agindua eman zuten orduan. Hortaz, halaxe egin zuen Austinek.

Zuk duzun Nash Metropolitan, zehazki, 1956an ekoiztutakoa da. Erabiltzen al duzu?

Ibili ahal izango nuke, baina normalean ez naiz kalean Nash Metropolitanarekin ibiltzen. Noizean behin, eguraldi oso ona egiten badu, buelta txiki bat emateko ateratzen dut garajetik, baina bestela, auto kontzentrazioetara baino ez dut eramaten.

Nire bizioa dira autoak. Hiru izan ditut duela gutxira arte: bi zahar eta moderno bat. Dudan adinarekin, ordea, jada ez naiz autoarekin ia ibiltzen, eta garajeen hiru ibilgailurentzako tokirik ez dudanez, berriena saldu egin nuen. Beraz, bi auto ditut orain: Nash Metropolitan eta 40 urteko Mercedes bat. ■■■



Aitziber Garmendia

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Badago lana zail jartzen dizun jendea, baita errazten dizuna ere. Bigarren horien artean dago Aitziber Garmendia, euskal kultur ekosistema txikiko pertsonaia handia. Telebistan, antzerkian, zinean, irribarrea ateratzen saiatzen den pertsona horietakoa da Garmendia, eta lanean ere hala erakutsi zidan. Lan egiten dudan egunkariko urtekarirako argazkia ateratzerakoan erraz, oso erraz jarri zizkidan gauzak. ■■■

Datu teknikoak:

Kamera: Nikon D750

*Objektiboa: Sigma 50mm f1.4
ART*

Foku distantzia: 50mm

Diafragma: f1.4

Obturazio abiadura: 1/2500 seg.

ISO: 200

Instagram: [@arnaitzrubiophoto](https://www.instagram.com/arnaitzrubiophoto)







FELIX ZUBIA

Koronabirusa, gabon jaien atarian

Ez dugu berehalakoan ahaztuko 2020. urte hau. Askok uste ez genuela, izurrite bat iritsi zitzaigun, eta hemen daukagu apopilo, noiz joango den argi ez dugula, nahiz txertoek itxaropena zabaldu diguten.

Ezer ez genekiela harrapatu gintuen birusak martxoan. Ez genekien ondo nola kutsatzen zen, zer kalte eragiten zituen, ezta nola tratatu ere. Dena ez zaigu argitu, baina gauza asko badakizkigu, behintzat. Norbanakoaren aldetik, ez da gaixotasun larria. Orokorrean hartuta, hilkortasuna % 1aren azpitik dago, eta 80 urtetik aurrera, talderik txarrean ere, % 20aren azpitik dago. Talde moduan baina, jendarte moduan, oso arriskutsua da. Pertsona askok eta askok sintomarik gabe edo oso forma

arinean izaten dute gaitza, baina kutsakorrak izaten jarraitzen dute, eta oharkabean jende asko kutsatzen dute. Osasun sistemak gainezka egiten du, ospitaleratze oheak betetzen direlako. Esate baterako, unerik txarrean, eguneko 90 ospitaleratze baino gehiago izan ditugu Euskal Autonomia Erkidegoan. Donostia Unibertsitate Ospitaleak, adibidez, 1.000 ohe inguru ditu, eta dozena bat egunetan ospitale oso bat

**EGOERA HORRI
AURRE EGITEKO,
EZINBESTEKOA DA
TRANSMISIO
KATEA ETETEA**

beteko litzateke. Zainketa Intentsiboen Unitateak egun gutxitan betetzen dira, eta gaixorik larrienak, bai koronabirusa dutenak, bai bestelakoak (auto istripuak izandakoak, bihotzekoak, pneumonia larriak, arritmia...), zaintzeko aukerarik gabe utzi. Eragiten duen heriotza kopurua ere izugarria da, 3.700 baino gehiago dira Hego Euskal Herrian. Astebetean heriotza gehiago eragiten ditu urte guztian trafikoko istripuek baino.

Egoera horri aurre egiteko, ezinbestekoa da transmisio katea etetea. Udaberrian garrantzi handia ematen zitzaion esku eta objektuen garbitasunari, baina ikusi da gauzen bidezko transmisioa oso zaila dela. Antzeko zerbait

HAUXE BAI JENEROA!



gertatu da haurrekin ere. Kutsatze iturri handia zirela pentsatzen zen hasieran, eta gero ikusi da kutsakortasun baxua dutela. Halaber, ikusi da toki itxietan pasatzen dugun denborak eta bertan pilatzen den pertsonen kopuruak garrantzi handia duela, musukorik gabe bagaude, batez ere. Gela itxi batean bagaude, eta ondo egurastua ez badago, birusa ez da lurrera erortzen, baizik eta airean mantentzen da. Horrela, metro askotara hedatu liteke birusa, batez ere musukorik gabe bagaude. Kutsatze katerik handienak elkarrekin bizi ez diren jende asko toki itxietan pilatzean gertatzen dira, bereziki jan eta edateko musukorik gabe bagaude. Edo kantuan edo oihuka ari bagara. Horrelako egoerak bi tokitan ematen dira

bereziki: gure etxeetan eta ostalaritzan.

Badakigu Gabon jaietan gauza ederra dela lagun eta senideekin biltzea. Duen arriskua ezagututa, maitasun eta adiskidetasun seinalerik handiena elkarrekin ez biltzea da. Txertoak, edo txertoek hobeto esanda, konponduko digute egoera. Horretarako hilabete batzuk behar ditugu, ordea, eta bitarte horretan neurriekin jarraitu beharra daukagu. “Niño Jesusen eskia!”, esaten genuen umetan, Zumaiara joanda Gabon egunean, poltsa pasatzen genuenean. Eskea egitera nator berriz ere, baina ez dirua noski. Ez gaitezen talde handitan bildu, eta ez gaitezen etxe ezberdinetan bizi garenak bazkaltzeko edo afaltzeko elkartu. Denon onerako. ■

ERREMATEA



IOSU ALBERDI

Egia

Gerrak, musika tribala, pobrezia eta hizkuntza ulertezinak. Afrikaz pertzepzio hori zuen Chimamanda Ngozi Adiche idazle nigeriarak AEBetara iritsi zenean izan zuen lehen gelakideak. Hala, harrituta geratu omen zen Ngozik ingelesez ondo hitz egin Nigeriako hizkuntza ofiziala da eta Mariah Carey abeslari estatubatuararen musika entzuten zuela konturatzean.

Agian gehiegizkoa irudituko zaigu gazte haren ezjakintasuna, baina zer egingo zuen, bada, hark hura bazen kontinente hartaz jaso zuen ideia bakarra? Pelikulek eta eleberriek ez ezik, komunikabideek ere kontatu ziotena. Izan ere, hain da handia iritzi publikoan finkatzen diren errelatoen indarra. Eta, horrenbestez, norberarena inposatzeko nahia, bakoitzaren egia gizarte osoaren egia bihurtzeko helburuarekin.

Izan ere, errelato bakarrak garaile eta garaituak ezartzera darama, biktimak eta borreroak izendatzera. Finean, gu (onak) eta haiek (txarrak) ezberdintzerak. Errealitateak, baina, badiu milaka aurpegi, gureak eta haienak. Hala, Ngoziren esanetan, «errelato bakarrari uko egiten diogunean, ulertzen dugunean inoiz inon istorio bakar bat ez dagoela, paradisu moduko bat berreskuratzen dugu». ■

URTE BERRIRAKO
GURE DESIORIK BEHINENA
LEHENGU BIZIMODU
PETRALERA ITZULTZEA
IZANGO ZENIK,
AIZU



PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com



Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52



AITA MARI
Jatetxea

☎ 679 10 31 67
aitamarijatefexa@gmail.com
Juan de Zigarán 1 behe • 20750 Zumaia



AIZPURUA
LIBRURU
DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarte
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00



ALBERDI
dekorazioa


- Eskaiola
- Pladur-a

☎ 696 72 61 88
943-14 32 61



Amama
Taberna

tel.: 943-54 31 64
amamataverna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)



Ane Ibarretxe Hariz Klinika

Ardantzabide, 3 behe • Zumaia
☎ 943-54 35 70 • ☎ 688 73 38 56



Ardantzabide
ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com


Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-86 25 32

Arotzategia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 16 31



ARDANTZABIDE
TABERNA

Ardantzabide, 12
943-57 22 47



OKINDEGIA
Arkupe

Nausti, 2 • tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-xopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69



Bosch Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
autoszumaia@bosch-bcs.com

Tel. 943-86 14 85



Azkue

www.ricardoazkue.com


Txomin Agirre 4, behe • tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkue.com fax: 943-86 27 48



bai bidea

Taberna • Jatetxea
Bar • Restaurante

943-86 02 75
697 81 24 92
batzokizumaia@gmail.com
Eusebio Gurrutxaga plaza, 6
Zumaia (Gipuzkoa)



BAKUN

ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritza

Albaitaria
Itaki Garmendia

Basadi, 7, behe • tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadivet.com
www.basadivet.com

Geloz: 11-13 / Armatulok: 15-19:30 / Askelehen gelozan eta larunbatetan itxia
Larrialdietarako: 605 72 87 07 Elteaz eteko zerbitzua



San Lorenteko mugarrietako bat.

"Mugarrien eta muga lerroaren inguruan dakiguna idatzi eta edozeinen eskura jarri nahi dugu"

IMANOL AZKUE IBARBIA IDAZLEA

Duela hamar urtetik mugarrien ibilaldia antolatzen aritu da Imanol Azkue urtero-urtero. Muga lerroaz eta mugarriez urteotan ezagututakoa liburu batean bildu du, eta urte berriarekin batera emango du argitara, Baleike Kultur Elkartearen eskutik.

Testua: **Maria Maya Manterola**. Argazkiak: **Imanol Azkue Ibarbia**.

Noraino iristen da Zumaia? Santiagoko mugaren inguruan Getariarekin izandako tira-birak salbu, gutxitan mahai gaineratu da mugarrien eta muga lerroaren gaia. Konfinamendu perimetralaren ondorioz, ordea, hainbatek galdetu dio azkenaldian Imanol Azkueri (Zumaia, 1965) zehazki zein den muga lerroa. Hain justu, Zumaiaiko mugarriak ezagutzeko ibilaldia antolatzen hasi zen Azkue duela hamar urte. Orain, ibilaldiari, muga lerroari eta mugarriei buruz jasotako guztia liburu batean bilduko du. “Erabiltzeko” liburua izatea nahi du Azkuek, “motxilan sartu, kontsultatu edota oharrak idazteko” balio duena.

Noiz eta zer dela eta sortu zitzaizun mugarriekiko interesa?

Zumaia, izena eta izana liburua hasi nintzen lantzen 2007an, eta 2008 argitaratu genuen. Itsasotik hasi, harraldetik, muga, kanpoko auzoak... kanpotik barruraka aztertu nuen Zumaia, zirkuluka, eta badago atal bat Zumaiaren mugekin. Aztertu nituen Zumaiaiko mugak – Debarekin, Zestoarekin, Aizarnazabalekin eta Getariarekin –, eta horko leku izenak landu. Mapari begiratu, ikusi nuen ibilaldi bat egin zitekeela. Lehendik ere bazegoen Zumaiaiko Bira, Indamendik antolatzen duena, baina ez muga lerroari jarraitzen, eta pentsatu nuen posible litzatekeela egun batean muga lerroaren gainetik ibilaldi bat egitea.

Beste gauza asko bezala, hor geratu zen ideia, baina 2011n esan nuen ‘Hau egin egin behar da!’. Lagunei komentatu nien, eta deialdia egin nuen Atekin, garai hartan Baleiken nuen blog batean. Hemeretzi lagun elkartu eta ibilaldia egin genuen. Euritan blai ibili ginen, baina oso gustura. Harrezkero urtero egin dugu. Jendeak eskatu egiten du: ‘noiz izango da?’. Batzuetan udan, besteetan udazkenean; baina onena udazkenean da, landaretzak ez daukanean hainbesteko indarra. Gehienetan urrian edo azaroan egin izan dugu, larunbat batean.

Urteotan ezagututakoa eta bildutakoa liburu batean jasoko duzu orain.

Baneukan gogo, urtez urte joan garelako ibilaldia aldatzen eta gauzak ikasten. Mugarri berriak aurkitu ahala aldatu egin dugu ibilaldia, eta gauza ezberdinak egin. Behin ere ez da ibilbide berbera izan, eta parte hartu duen jendea ere aldatu egin da. Gainera, ahaztu egiten dira gertatzen diren gauzak, eta komeni da gauza batzuk, behintzat,



Ezkaraztoren magalean dagoen mugarrietako bat.



idatziz jasotzea. Itxialdian egon garenean pentsatu nuen polita litzatekeela hori jasotzea, eta horretan jardun nuen. Materiala jaso, ikusi, zein egitura izan zezakeen aztertu... Abuztuan jardun



Taldeko argazkia 2014an.


nuen ibilbidea egin eta mugarriak banaka konprobatzen Gontxalo Torrerekin, koordenadak egiaztatzen, zein falta diren begiratzen...

Nola egituratu duzu liburua bera?

Lehenengo, sarrera batean jaso dut nondik datorren hau guztia. Gero, mugez eta mugarriez aritu naiz, Zumaiaren sorreraz, inguruko herriez eta horiekin izan ditugun harremanez eta gorabeheraz, badagoelako zer kontatua; mugarriak eta mugak nolakoak diren, ez Zumaian bakarrik, beste tokietan ere bai. Gero, hirugarren zatian, zein den Zumaiako muga lerroa, eta herri bakoitzarekin nolako muga lerroa eta zer mugarri dauden, eta mugarri bakoitzarekin fitxa bat. Ondoren, laugarren zatia da mugarrien ibilbidea: normalean ibilaldi batean zer egiten dugun, nondik nora joaten garen, eta argazkiekin eta lagunduta nondik ibili behar den eta abar. Azkenik, bibliografia eta eskerrak. Eta gero, eranskinak: hor daude mapa zabalgarri bat eta mugarri guztien zerrenda. Zerrendan agertzen dira izena, kokalekua, zein alturatan dauden, edota badauden edo ez –mugarri batzuk ez daude, nahiz eta dokumentatuta egon–.

Historiarekin lotura duten lanak egin izan dituzu.

Amildegi bat sumatzen al duzu gai horietan belaunaldi gazteengana heltzeko?



Mugarria, atzealdean Andikaraberri dela.

Bai, handia. Gazteak ere etortzen dira tarteka, baina mugarrien eta muga lerroaren kontuak eta,



Pikoteko mugarran 2013an.



Pikoterrekako mugarra.

nori inporta zaizkio? Beno, eta ez da gazteen kontua bakarrik. . Badago transmisio eten bat, gaia ez delako landu. Gainera, ezberdina da mugarriek beraiek ere duela 100 urte zer garrantzi zuten eta zer duten gaur egunean. Zergatik inporta zaigu orain? Jakiteko ondoko herria non hasten den, eta ondorioz joaterik badugun. Aurrekoan galdetu zidaten ea Indamendiko gurutzea Zumaia edo Zarautz den..., bada, ez bata, ez bestea. Santiagoko hondartzako mugaren

kontua ere galdetu izan didate, edo Zarautzekin muga badaukagun, hara trago bat hartzera joana ahal izateko...

Nik ulertzen dut gazteei-eta ez interesatzea horrelako gaiak, beste interes batzuk izatea. Gai honetan ez dut esango zerotik hasi behar izan dudarik, baina nik ez nekien ia ezer. Pixkanaka, urtez urte, ibilaldiari esker eta galdezka, ezagutzen joan gara, eta dakigun apurra bateratzea lortu dugu. Duela hamar urte nekiena baino askoz gehiago dakit orain, eta iruditzen zait beste jende batek ere badakiela. Mugarrien ibilaldia egiten duenak egun batean gutxi gorabehera badaki non dauden mugarriak edo zein den Zumaiaaren ingurua. Hori da polita. Etena normala da, eta ez gai honetan bakarrik; gai askotan gertatzen da. Gero, liburuak eta lanak-eta egiten dituzu, eta nahi duenak begiratzen du eta nahi duenak ez, baina beti dago lantzea.

Berez ibilaldia bera historia ezagutzeko aitzakia bat da?

Bai, hala da, baina normalean nik ez dut esplikaziorik ematen, galdetzen badidate bai, baina bestela ez. Asmoa ez da bisita gidatua egitea. Gauza batzuk badira politak: mugarri bat zaharra baldin bada, 1500 ingurukoa, esan egiten duzu. Horrelako detaileak bai. Anekdotak baldin badaude ere bai. Jendeak ere badakizki nik neuk ere ez dakizkidan gauzak. Beraz, gehiago da ezagutza hori partekatzea. Giro oso ona sortzen da alde horretatik. Badago jendea urtero egin duena ibilbidea, eta asko dakiena.

Niretzat ibilaldiaren gauzarik politenetako bat da oso jende diferentearekin elkartzea, asko ezagutzen ez dituzunak, gainera. Eta egunean zehar denekin hitz egiteko aukera daukazu. Sortzen den giro hori oso polita da. Ezagunak, ezezagunak, lagunak... nahastu egiten da, eta urtero egoten da anekdotaren bat. Ez dugu inoiz arazorik izan, eta beti dago zerbait berezia.

Badago zerbait atentzioa eman dizuna?

Bai, gauza asko. Adibidez, Zumaia inguruko bide berriak eta parajeak deskubritzea, mugarrien aitzakian. Edo beste batzuetan sorpresa da non dauden mugarriak eta nolakoak diren. Harraldean dagoen Palankamugarriren bila, esaterako, ez dakit zenbat aldiz joan nintzen, eta gutxien espero nuenean topatu nuen. Eta hura ikusi nuenean sentitu nuen poza... Beste bat da, adibidez, Kantera baserri ondoko mugarra, okerka sartuta dagoelako. Bere garaian aterako zuten, berriz ere sartu, eta egon beharrean Zumaia begira

Zumaiako letra (Z), Zestoara begira dago, eta alderantziz, Zestoakoa (C) guri begira. Mugarri batzuk bide ondoan daude: Andikara baserriaren bidetik hiru metrora bat dago, eta seguru asko pasako zara Elorriagara bidean, eta ez zara konturatuko. Gero, mugarri guztiak ez dira berdinak: forma aldetik, material aldetik, itxura... diferenteak dira.

Ezaugarrien bidez jakin daiteke zein garaitakoak diren?

Bai. Batzuk amorfoak dira; zenbat eta zaharrago, orduan eta amorfoagoa. Beste batzuk, berriez, lauki formakoak dira. Berrienak hormigoizkoak dira, eta beste gehienak hareharritzkoak edo kareharritzkoak. Mugarrien gaia Aldundiaren eskumenekoa da, eta tarteka egiaztatu egiten ditu, mugarriek hor jarraitzen dutela ikusteko, eta aktetan dago jasota jaso. Lehen, ohitura ere bazegoen, beste herri batzuetan mantendu dena: udaletan zinegotzi berriak sartzen direnean, mugarriak mugarri joan, jakiteko noraino zen herria eta dena ondo zegoela. Oraingo alkateak, Iñaki Ostolazak, parte hartu zuen ibilaldian duela pare bat urte, eta badaki non dauden mugak...

Datozen urteetan antolatzen jarraitzeko gogotsu zaude?

Asmoa neukan aurtan uzteko. Antolatzeke lanak behintzat, bai. Zikloak bukatu egin behar dira, eta aurtan hamargarrengo urtea nuen antolatzen. Berez ez da lan handia: begiratzea mareajeak nola dauden –harraldera sartzeko bajamarra izatea komeni da–, Elkanon bazkaria enkargatzea, eta bi-hiru gauza kontuan hartzea da. Bestela, erraza da. Beste kontu bat da, antolatzen baduzu zer ardura daukazu; jatorrak gara onean, baina gero, txarrean edo zerbait gertatuz gero... Aurtengoarekin amaitzea neukan buruan, eta gero laguntzeko prest egotea, beste batek edo batzuk hartzea ardura. Koaderno ateratzearen ideia ere hori da: urtez urte ikasten joan garen hori idatziz jaso, eta edozeinek edozein unetan ibilbide hori egiteko aukera izatea. Inork antolatu

Mugarriak

- **Deba 9** (6 lokalizatuta).
- **Zestoa 27** (20).
- **Aizarnazabal 11** (9).
- **Getaria 21** (17).



Palankamugarri.

gabe, norberak bi-hiru etapatan antola dezake ibilaldia, eta egin. Ideia hori da: dakigun guztia idatzi eta edozeinen eskura jartzea.

Koadernoan, ibilaldiaren zatian, noizbait parte hartu lagun batzuei zerbait idatzeko eskatu nien, eta egin dute. Bakoitzak kontatu du bere ikuspegitik nola bizi izan duen egun hori. Espektro nahiko zabalekoak dira parte hartzaileak, eta hori ere polita da.

Norbait prest agertu da ibilaldia antolatzeke lekukoa hartzeko?

Urtero, ibilaldian, Elkanoko bazkariaren ondorenean, kafe garaian, asko [kar, kar]. ‘Mugarrien komisio bat egin behar dugu, eta ni presidente, hau eta bestea...’. Baina, berez, ez. Dena bezala: jendeak nahi baldin badu, egingo da, eta bestela, ez.

Mugarrien ibilaldiaren koaderno deitu diozu. Erabilerarema teko pentsatu duzue formatua.

Liburuak apaletan egoten dira, baina hau koaderno bat da, erabiltzeko. Kotsultatzeke, motxilan sartu eta edonora eramateko edota oharak hartzeko balioko du. ■■■

Rocka txerto moduan

Pandemiak hankaz gora jarri du musika mundua amaitu berri den 2020. urtean. Kontaezinak dira bertan behera geratu diren kontzertuak; ugariak kolokan geratu diren ibilbide profesionalak, musikarientzako zein teknikarientzako edo aretoetako langileenak. Badira, ordea, izurriteari aurre egin eta diskoak plazaratu dituzten taldeak. Horietako bat da Marlik boskote zumaiarra, *Azaletik ezabatu baino lehen* izeneko bigarren diskoarekin.

Testua: **Juan Luis Romatet.**
Argazkiak: **Utzitakoak.**

Ekaitzaren ostean dator barealdia”, dio esaerak. Kasu honetan plurala erabili beharko genuke, ekaitzak, pandemiaren bi olaturen artean amaitu baitzuen Marlikek bigarren diskoaren grabazioa. Maialen Velardek (ahotsa eta gitarra), Beñat Fernandezek (gitarra), Ales Gorritik (baxua), David Gorritik (bateria) eta Oihana Rodriguezek osatzen duen taldea iazko otsailean hasi zen *Marlik* (2017) diskoaren jarraipena izango zen abesti sorta grabatzen, Usategian, Jurgi Taboada soinu teknikariaren aginduetara. “Baxuak eta bateriak grabatu genituen, gitarra batzuk ere bai, eta gero etorri zen hau guztia”, dio Beñat Fernandezek. “Hau guztia”, noski, koronabirusak eragindako izurritea da. Maialen Velarde eta biak elkarrizketatu genituen abendu hasieran, Ahotsenean emango zuten kontzertuaren bezperan, taldeak Usategian konpartitzen duen entsegu gelan. Gela txikia da, instrumentuz betea, eta zaila egiten da pentsatzea bost lagun sartzen direla bertan.

Bost lagun; izan ere, hasierako laukotea boskote izatera pasa zen iaz Oihana Rodriguez piano jotzailea taldera gehitu zenean. “Ikusten genuen aldaketa bat behar zela taldean; beste pertsona bat, beste instrumentu bat”, dio Fernandezek. Ainhua Urteagarekin hasi ziren lehenbizi lanean. “Lehendik eginda genituen kanta batzuei beste buelta bat eman zien teklatuarekin, eta grabatzerako genituen asmoak pixka bat lotu genituen”. Lehen olatua hasi zen itsasertzera heltzen, eta konfinamenduarekin batera Urteagak taldea utzi zuen.



Grabaziorako zituzten ideiak denbora baterako gorde egin behar izan zituzten. Garbi zuten, ordea, diskoa aterako zutela; grabazioa uzteko arriskurik ez zen inoiz izan, eta Oihana Rodriguez taldean sartu zenean asmoak berreskuratu zituzten. “Ordura arte grabatutako parteak pasa genizkion eta ideia gustatu zitzaion. Kasualitatea izan zela esan daiteke, baina orain ia kanta guztietan daude teklatuak: piano klasikoa, Hammonda, Rhodesa... Abesti guztiek dute kolore desberdina”.

Udan amaitu zuten diskoaren grabazioa. “Garbi genuen udan [pandemiaren] kontu hau lasaitzen zenean, lasaitutakoan, grabatzeko aprobetxatuko genuela. Garbi geneukan hasieratik nola izango ziren kanta. Udan asteburuero ibili ginen grabatzen bukatu genuen arte”, dio gitarra jotzaileak. Grabazio prozesua “esperimental” izan dela dio Fernandezek, “baina nik uste lagundu duela bigarren forma bat ematen. Egia ere bada nahikoa izan dela: beste bi hilabete luzatuz gero, beste disko bat izango zen”.

Grabazioa bakarrik ez, sormen prozesua ere bitxia izan da, eta hor taldeak bizi duen deslokalizazioak zerikusia du. “Kantuek beste itxura bat hartu dute aurreko diskoarekin konparatuta, eta hori gure taldearen deslokalizazioaren eragina da. Justu Maialen Lisboara joan zen bizitzera, ni Bilbora. Kantuak konposatzeko orduan ez geneukan denok lokalean biltzeko aukerarik, elkartu eta abestiak lantzeko”, du gogoan Fernandezek. “Nik uste Maialen eta biok hemen bizi izan bagina kante bestea itxura bat izango zutela. Egia da eboluzio natural bat izan dela, baina bai, disko hau astunagoa da”.

Marlik, oraindik laukotea zenean, Getariako Balenciaga museoa eman zuten kontzertuan.



“Beñatek musikak bidaltzen zizkidan eta nik musika horren araberrako letrak egiten nituen”, dio Maialen Velardek. Musikaren gogortasunak Velardek idatzitako hitzetan eragina izan zuela dio. “Musikak astunagoak diren bezala, letrak ere ez dira ‘zer polita den udaberria’ modukoak. Joera batek bestera eramaten zaitu”. Kantatzeko eran ere soinu astunago hauetara moldatu behar izan du Velardek. “Azkenean zure transmititzeko era ere aldatu behar duzu. Ez da nik kantatzeko dudak modua; bertsoetatik nator, beste ahots goxoago batetik, eta musika astunagoa bihurtu den honetan



Goiko argazkia: Jurgi Taboada izan dute soinu teknikaria diskoaren grabazioan. Beheko argazkia: Gatza Factoryk diseinatu du diskoaren azala.

nire haserre hori bilatzen ere aritu naiz”.

Emakumeak dira Marliken abestietako protagonistak; emakumeen istorioak, historiak, bizipenak. “Bestela ere badut idazteko ohitura. Testu batzuk banituen, eta Beñati bidali nizkion, ea handik zerbait okurritzen zitzaion. Nituen testu asko emakumeen istorioen ingurukoak ziren. Izan daiteke indarkeria sufritu duen emakume bat; edo kaletik doazela beldurra sumatzen duten mila emakume; edo ama bat. Pixkanaka konturatu nintzen diskoan doazen abestiek emakume banaren istorioei erantzuten zietela. Kanta bakoitzak emakume baten egoera deskribatzen du, eta beti bilatzen du bukaeran askatasun bat”.

Bizipen horien, aldaketa horien, esperimentu horien emaitza da *Azaletik ezabatu baino lehen* diskoa. Eta lehen abestitik igartzen da aldaketa; beste soinu batzuen, beste jantzi eta kolore batzuen bila abiatu da-eta Marlik disko honetan. *Izateko zer!* boteretsuarekin hasten da diskoa, eta taldeak bizi izan duen eboluzio hori ezagutu ez duen entzulea ezustean harrapa dezake. Garaje doinuak, Hammondak blaitutako hard rocka, rock amerikar tradizionalagoa –*Hazten beti* ederraren kasua–, edo country rock ukituko abestiak –diskoari izena ematen dion *Azaletik ezabatu baino lehen*– entzun daitezke, hurrenez hurren, disko honetan.

Bederatzi abestiz osatutako diskoa da Marliken bigarrena: zazpi abesti berri eta Gasteizeko Taldegunen grabatutako bi kanta: *Horma lokartu bat* eta *Suge*. “Justu Tom Waitsen eta Motörheaden bertsio bana dira, aurreko diskoaren eta oraingoaren arteko trantsizioan geratu diren bi kanta”, dio Fernandezek. “Neuri ilusioa egiten zidan *Horma lokartu bat* sartzeak. Kalea Guztiona Da kolektiboari eskaini genion kanta da, eta modu digitalean izateaz gain –taldearen Bandcampean entzun daitezke biak–, bereziki ilusioa egiten zidan CDan joateak. Bestela, esandako trantsizio horretan galdu egingo zen”, gaineratu du Velardek.

BESTE SOINU BATZUEN, BESTE JANTZI ETA KOLORE BATZUEN BILA ABIATU DA MARLIK

Gatza Factoryk egindako azal eder batek janzten du CDa. Diskoa taldeak Bandcampen duen txokoan entzun daiteke oso osorik; formatu fisikoan eskuratu nahi duenak marlikzumaia@gmail.com helbidera idatzita eska dezake.

Abenduaren hasieratik dago kalean diskoa, eta zuzenean aurkeztea izango litzateke taldekideen ametsa, izurriteak utziko balu, behintzat. Ahotsenean, Durangoko Azokaren barruan, jo zuten lehenbizikoz boskote bezala, abenduaren 5ean. “Baina hortik aurrera ez dugu kontzerturik. Covidaren aurretik hiru kontzertu genituen lotuta, baina denak erori ziren; pixka bat erdibidean geratu gara, eta orain ikusiko dugu zer gertatzen den.

Egoeraren arabera izango da; derrepente hasiko dira [kontzertuak] antolatzen, edo ez. Inork ez daki zer gertatuko den. Baina bai, behar ditugu kontzertuak”, dio Beñat Fernandezek. “Azkenean erantzuna da. Lan bat egiten duzu, eskaintzen duzu, eta erantzuna da publikoak txalo egiten duen, edo ez; dantza egiten duen edo ez duen egiten. Feedback bat da, balorazio kontu bat da, jendeak ere gozatzen duela zuk egiten duzun horretaz”, gaineratu du Maialen Velardek.

Elkarrizketako lehen galdera izan zen eta paperera ekartzen azkena da. Nondik dator diskoaren izena? “Diskoko abesti bat da, seigarrena”, du gogoan Maialen Velardek. “Azaletik ezabatzeko zer dugun galdetuta, testuak dio azaletik ezabatu baino lehen bihotzetik ezabatu dela. Agurrez da; egoera batzuetan eman nahi ez, baina eman behar dituzun agurrez. Bihotzetik ezabatzen dituzu, baina beti uzten dute arrastoren bat. Ea disko honekin arrastoren bat uzten digun”. ■



Oihana Rodriguez izan da taldera gehitzen azkena. Bere teklaturek kolorea jarri di.



ASESORIA ARIN

- Abokatua
- Kontabilitateak, gestoria, zergak eta laborala
- Inmobiliaria gestioa
- Komunitate administrazioa

Gesalaga kalea, 22 beheka ▪ ZESTOA
Tel./Fax-a: 943-89 70 99 ▪ asesoriarin@asesoriarin.com

Ofizioa eta afizioa bat

Ana Egaña, irakaslea

Mendiak ematen dizkio Ana Egaña irakasle zumaiarrari asteari aurre egiteko "indarra eta bitaminak". Mugimendua aisian, eta mugimendua lanean, Herri Eskolako gorputz hezkuntzako irakaslea delako, baita IKT arduraduna ere. Esan du neuronak astintzen gorputza astintzen baino ordu gehiago pasatzen dituela. Testua: **Onintza Lete Arrieta**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.


Badira energia eta indarra transmititzen duten pertsonak. Barne indar hori nabari zaio, bor-bor, Ana Egañari (Zumaia, 1963). Mendiak ematen omen dio behar duen bitamina, eta berak, aurrez aurre jartzen zaion orori. "Zorte ikaragarria daukat gustuko dudan horretan lan egiteagatik". Honezkero herri osoak daki zer duen gustuko Egaña: mugimendua, kirola. Ez alferrik, hamaika arlotan aritua da txikitatik: eskubaloian, korrika, surfean, paletan, arrantzan, patinetan, mendiz mendi... Azken bi horiek ditu maiteen, eta azken boladan, baita beste bat ere: "Inoiz ez nukeen pentsatuko, baina yoga egiten hasi nintzen, eta engantxatuta nago, emozionatuta". Azaldu du urteekin ikasi duela barrura begira egin behar dela lanketa, baita kirolean ere, eta hori transmititzen saiatzen da lanean ere. Gorputz hezkuntzako irakaslea da: "Belaunaldi mordoa pasa ditut, 30 urte daramatzadalako, beti herrian bertan, Herri Eskolan". Asko aldatu dira urteotan soinketako eskolak, kontzeptua bera ere aldatu den heinean. "Etengabe ari gara berritzen, mintegietara joaten gara hamabostero beste irakasleekin harremana izateko, esperientzia partekatzeko". Oroken gainetik, baina, Egaña hiru gauza irakatsi nahi dizkie umeei: "Berdintasuna, errespetua eta maitasuna". Eguneroko lanean ideia horiek lantzen ditu, eta argi du hezkuntzaren helburua zerk behar lukeen: "Oso-oso garrantzitsua da ume eta gaztetxoek beren buruak ondo ezagutzea, zer diren, zer duten gustuko, zertan diren abilak, are gehiago hain aldakorrek diren garai hauetan. Kanpora begira bizi gara

asko, besteei begira, eta barrura, norberari begiratzen ikasi behar dugu".

Berak ere begiratzen du barrurantz. "Konfinamenduan hasi nintzen yoga egiten. Ez nuen inoiz pentsatuko hainbeste gustatuko zitzaidanik, beti oso mugitua izan naizelako. Baina orain, behar dut hau ere. Goizero-goizero bost-hamar minutuz meditatzen dut, eta gero ariketak egiten ditut lanera joan aurretik".

Pasioz, eta maskararen atzean irribarrea soinean duela eman ditu azalpenak. Gorputz hezkuntzako eskolak ere halaxe ematen ditu, gogotsu, aurtengo urtea oso urte berezia izaten ari den arren. "Zer pentsatu nuen esan zidatenean maskarekin egin beharko zutela soinketa ikasleek? Ezinezkoa zela". Baina berehala ohartu zen posible zela. "Hala ere, ahal nuen guztietan aire zabalera eramaten nituen ikasleak". Luze eta zabal mintzo da gorputz hezkuntzak hartzen dituen ertz anitzez, baita haren onurez eta haren garrantziaz ere. Onura fisikoak zein mentalak eta emozionalak aipatu ditu. Pertsona baten ongizateari egiten dion mesedea, azken batean.

Kirola egiteaz gain, kirola jarraitu ere egiten du. "Esku pilota ikustea asko gustatzen zait. Aimarren jarraitzaile amorratua naiz", aitortu du. Gehien jarraitzen dituen kirolariak, ordea, etxeakoak ditu: Ander Torriko, Kauldi Odriozola eta Mikel Martinez. "Ilobak ditut hirurak, eta pandemia iritsi aurretik batera eta bestera joaten ginen haien partidak ikustera. Bide batez, mendi bueltak egiteko aprobetxatzen genuen". Lotura handia du eskubaloiarekin. "Txikia nintzenean mutilen taldea bakarrik zegoen, eta neskak hor ibiltzen ginen baloia hartu eta geure kasa. Halako batean,



irrimarra



pentsatu genuen taldea atera genezakeela geuk ere, eta entrenatzailea topatu, eta halaxe hasi ginen". Ez ziren makalak izan, kadeteetan Espainiako txapeldun geratu baitziren.

Herriko beste bi talde ere aipatu behar dira Egañaz ari bagara. Indamendi mendi elkarte da bat. "Gogoan dut 6 urterekin nola ahizpa eta biok joaten ginen mendira taldearekin goizean goiz esnatuta". Eten bat egin arren eskubaloian jokatzeko hasi zenean, inoiz apurtu ez den harremana sortu zen hor ere. "Umeak eduki nituenean berriz hasi ginen mendira, eta erabat engantxatuta nago orain". Gaur egun, adibidez, askotan gidari lanak egiten ditu. "GPSa erabiltzen ikasi nuen eta irteera batzuetan taldea eramaten dugu Inesek eta biok. Batzordean aritu nintzen urte batzuek, eta oraindik ere nire alea jartzen jarraitzen dut". Umeei mendizaletasunaren harra sartu nahian ibiltzen da, umeentzat antolatzen diren txangoetan lagunduz.

Bigarren taldea askoz berriagoa da, askoz txikiagoa. "Jirabira talde txiki bat da, pandemia aurretik astero elkartzen zena patinatzeako kiroldegi atzealdean. Irekia da, edonor etor daiteke. Taldekide batzuk lehiaketetara joaten gara". Kirola bakarka ala taldean, nahiago nola izaten duen galdetuta, hauxe erantzuna: "Begira, ba, patinena talde kirola da berez, horretarako elkartzen gara, elkarrekin ibiltzeko, baina aldi berean, batzuetan bakarka ere horretantxe ibiltzen naiz. Bakarrik egoten naizen momentu gutxietako bat da, eta gustatzen zait". Kuriosoa da nola ezagutu zuen rollerren mundua. "Orain urte batzuk eskolan kirol hori probatzeko aukera eman genien umeei, eta hala hasi nintzen ikasten. Txikitan ibilia nintzen, baina oraingo patinak alde ederrekoak dira, eta nahikoa azkar lortu nuen moldatzea. Gustatu egin zitzaidan, eta noizbehinka neu bakarrik ateratzen nintzen. Hori

bai, goizean goiz egiten nuen, inork ez ikusteko. Pentsatzen nuen jendeak esango zuela ea zertan zebilen ume txiki batzuen ama patinetan, etxean umeekin egon beharrean. Sentsazio hori neukan". Duela 30 urte inguru izan zen hori.

Orain zazpi urte, berriz, 50 urterekin, sartu zen Donostia Roller taldean, eta ordutik erabiltzen ditu patin handiak, abiadurakoak. Izan ere, egun batean, lehiatzen ikusi zituen patinatzaileak. "Zakila bira egiten zen herrian, eta deitu zioten Donostiako klub bati, erakustaldia egin zezan. Gorpil handi haiek ikusi nituenean, ene! Pentsatu nuen horiekin hegan egingo genuela! Espezializatutako denda batera joan nintzen haien bila". Harrezkero, lagun talde bat hara eta hona ibili izan da probetan parte hartzen. Ekin-eko Iñigo, Arantzazu, Sara... aipatu ditu.

Hiru seme-alabaren ama, kirolaria, langile nekaezina... Eguna motz geratzen zaio Egañari. Hala aitortu du berak. Agerikoa da afizioentzat denbora behar duela. Lanak ere ordu asko kentzen dizkio, gorputz hezkuntza erakustez gain, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiako (IKT) arduraduna baita. "Hori da inoiz amaitzen ez den lan bat, eta, gainera, horren

Ana Egaña

- **Adina:** 57 urte.
- **Ikasketak:** Magisteritza eta Pedagogia.
- **Lanbidea:** Irakaslea Zumaiako Herri Eskolan.
- **Irakaslea ez banintz...** Gauza asko. Bat aukeratzekotan, goi-mendiko gidaria.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Garaia aproposa bada bainu bat hartzea, patinetan ibiltzea, saltaka egitea...



ardura hartu nuenetik asko gustatzen zaidan mundua da teknologia berriena. Astean 12 ordu ematen ditut gorputz hezkuntzakoak; beste guztiak eta gehiago IKTrako izaten dira". Baina badu beste zera bat ere bizitzan; ez da afizioa. Obsesioa? Zaila da etiketatzen. Nola esaten zaio heriotzaz eta bizitzaren efimerotasunaz hausnartzeari, dolua lantzen dutenen ingurura biltzeari?... "Bizitza ikaragarri motza da. Urteak airean pasatu zaizkit, konturatzerako 57 urte ditut, eta ez dugu asko pentsatzen horretan, ezta

heriotzaz eta doluaz ere. Niri asko interesatzen zait, eta behin herrian bertan Death Cafe saio batera joan nintzenetik, denetara joan naiz".

"Mugimenduko gauzak probatzea gustatu izan zait beti, mugimendua gustatzen zait", esan du elkarriketan zehar behin baino gehiagotan. Hori da esaldi klabea Egañari buruz idaztean. Ofizioari buruzkoa da berez Erretratua. Ordea, ofizioa afizioarekin uztartu zaio: "Erretiratutakoan ere nahiko nuke nire alea jartzen jarraitu eskolan". ■

EL CONQUISTADOR DEL CARIBE

BIZI EZAZU ABENTURA
estreinaldia
urtarrilak 11 astelehena

➔ 2

BALEIKE BAZKIDE

Zuen beharra izaten jarraitzen dugu. Babestu Km0 hedabideak.



Egin zaitez bazkide!

Bazkide egiteko: bazkide@ukt.eus • 943-86 15 45


NON DAGO BALEIKE?

Lehiaketa berri bat martxan jarriko dugu urtarrietik aurrera: Non dago Baleike?



Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna administrazioa@baleike.eus e-posta helbidera bidali urtarriaren 18a baino lehen. **Saria:** Ongizan fisioterapia bonoa. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Carmelo Larburu, Iban Egaña eta Miriam Romatet Baleikeko bazkidea dira Onura, Marlik diska eta Juanjo Larrañagaren saridunak.



ongizan
FISIOTERAPIA ZENTROA

MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK

08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen
digital
multimedia

01

Publizitatea



Papera

07



Identitatea
eta marka irudia

06



Diseinu
lanak

05



Webguneak eta
marketin
digitala

04



Edukien
sorkuntza

03



Komunikazio
kanpainak

02



Estrategia eta
planifikazioa






Hamahiru!

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. 13 dira guztira.




Itzala

Zein da eskiatzaile traketsaren itzal zuzena?



ELUR bola

Zer sartuko zenuke elur bola batean? Paisaia zuritu bat? Otsoa? Eskiatzaileak? Marraztu.



HauXe Parea

Arrain hauen


artetik bi berdin-berdinak dituzu (tira, agian bat bestea baino handiagoa, baina gainontzean berdin-berdinak). Zeintzuk ote dira?

Arrotza


Lerro bakoitzean bada elementu bat gainerakoein bat ez datorrena.



Mezu gordea



Eman beheko irudi bakoitzari bere hizkia eta esaera zahar bat osatuko duzu.



Negu gorriko SUDOKUAK

Osatu lauki zuriak sudoku bakoitzari dagozkion hizkiak kontuan hartuta. Gogoratu letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

NEGU

(N, E, G eta U)

	N		E
		N	
	G		
U		G	

GORRI

(G, O, RR eta I)


O			G
		RR	
	O		
I			RR



A B C D E



F G H I J



K L M N O



P R S T U




V W X Y Z

Soluzioak ikusteko:

www.plazanbazan.eus/

PUBLIZITATEA



BASUSTA
erretgia · asador
José Blázquez

Paxila Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16




EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87



Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



ERNIO
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45



Entz
Informatika

ORDENAGAILUAK · MUGIKORRAK ·
KONPONKETAK

Behoko plaza 943-14 33 95



Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30



Garroa

Carlos Cifero - Ainhoa Olazola
tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com



Gure Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70



Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelese praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34



ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20



INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Iriñdo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84



IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako soinu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com



IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo12 943-86 07 60

Zure besoak behar ditu eta zure besoetan behar duzu



MIREIA CENTENO
PSIKOLOGOA

Haur batek bere gurasoen kontaktua behar du. Behar bat da, atxikimendu instintua da.

Kontaktua, usaina, azala... sentitu behar ditu seguru dagoela jakiteko.

Haurdunaldian zehar azaltzen da atxikimendu instintua eta, pixkanaka, aurrena haurra eta amaren artean kasu gehienetan, eta gero aitarekin, indartuz joaten da. Oso instintu garrantzitsua da, horren gainean eraikiko baita besteekin erlazionatzeko modua. Atxikimendua, zaindu egin behar da, ase egin behar da. Baina ez dugu ahaztu behar amak ere behar hori duela, instintu bat duela haurra zaindu eta babesteko. Haurrak duen behar horretaz hitz egin genuen. Gaurko honetan, amaren beharraz arituko gara.

Jakin behar dugu, askotan, amak bere haurra beste edonoren besoetan utzi nahi ez izatea ez dela arazo bat, baizik eta behar bat. Amak bere haurra bere besoetan edukitzeko beharra dauka, horrela haurra babesten

duelako. Instintu hori asetzen lagundu behar diogu.

Askotan bikoteak behartuak sentitzen dira besteek beraien haur jaio berria besoetan har dezaten, pentsatzen dutelako hartzen ez uztea errespetu falta izan daitekeela.

Haurrak bere gurasoen besoak behar ditu, ez beste inorenak, eta era berean, amak haurra bere besoetan behar du.

Horrela, bai haurra, bai amaren instintua asetuak egongo dira eta beharrezkoa den lotura sortuko da. Segurtasunean oinarritutako lotura bat.

Lotura horrek haurdunaldi osteko egonkortasuna lortzen lagunduko die biei, amari eta haurrari. Ama ziurrago sentituko da, eta prest dagoenean, bere haurra besteen besoetan utziko du.

**AMAK BERE HAURRA
BESTE EDONOREN
BESOETAN UTZI
NAHI EZ IZATEA
EZ DA ARAZO BAT**

Zer gertatzen da ama bati bere haurra besoetatik kentzen diogunean?

Ez diogu uzten bere beharrak asetzen. Ez diogu uzten bere haurra babesten eta bere zaintza instintua asetzen. Gainera, erasotzeko instintua pizten zaio, eta horrek segurtasun falta handia sortuko dio beregan eta beste pertsonengan. Bere haurra babesteko beharra handiagoa izango da eta bere inguruarekin gatazkak sortuko dira.

Beraz, oso garrantzitsua da gurasoek jakitea beraiek erabaki behar dutela haurra besteen besoetan utzi edo ez, eta ezetz erabakitzen badute, erabat onargarria eta naturala izango dela. Bestalde, guraso berriak bisitatzeraz edo ikustera goazen pertsonok ere jakin behar dugu gurasoek ez badute eskaintzen, ez dugula haurra besoetan hartu behar. Berdina gerta daiteke haurra jaio eta lehenengo asteetan ez badugu bere espazioa errespetatzen. Gogoratu: familia batek haurra izan berri duenean, bere espazio eta denbora behar du eta bere gonbidapenaren zain egotea komeni da bisitan joateko. ■■■

ORRAZTEGI ZUMAI A

943-86 20 83

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10

tel. 943-05 05 77

KABI TABERNA

Pateita Etxezarreta, 15
943-11 74 27

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

kalarri

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

MAIAUR
ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

f i

LOOK INDUSTRY

Maite Elosua
Pelukexi

Ausartzen diren erretzat eta ez diren erretzat.
Zu zara nire bezeroa.

Erribera kalea 7, 2. atzealdea
638 59 50 38

CROISSANTERIA

pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus **PENCIL**
estudio decoración

Julio Beobide, 2 - ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com

Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan

MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91

NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Elengabeko garabi zerbitzua

636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indutrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com

LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zaratuz
678 875 652 / 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com

OSA BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

OSKARBI KIROIAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943-14 31 12
oskarbikirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Korta Indutrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com



Urolaren ertzeko basadiak eta erriberak

Zumaiaren historia osoa Urolako itsasadarrari lotuta dago. Herritarren bizimodua estuki egon izan da estuarioarekiko harremanak baldintzatuta: portuaren babesa baliatu eta urruneko merkataritza harremanak ezartzerakoan, mota guztietako lehengaiak lortzerakoan, baina baita itsasgorek eragindako kalteei aurre egiterakoan ere. Harreman honen gorabeherak berreraikitzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak ikerketa proiektu bat finantzatu zuen 2020an, hiru arlotan: artxibategietako agiriak berrikusteko, egungo estuarioa kartografiatzeko eta padura lurretan jasotako laginen analisi fisiko-kimikoak egiteko. Jasotako materialak

Testua: **Josu Narbarte Hernandez.**

Erribera paisaiak Zumaian. Basadizarren eta Usurbiribillagako irlen ikuspegi orokorra, Artaditik.



1794ko obra egin aurreko egoera.

ZUMAIKO UDAL ARTXIBOA, 66. KAXA

1794ko lanen proiektua basadiak

erribera bihurtzeko. ZUMAIKO UDAL ARTXIBOA,

66. KAXA



prozesatzen ari gara oraindik, baina behin-behineko emaitzek argi erakusten dute estuarioak herriaren historian izan duen garrantzia.

Herria eta itsasadarra

Inguruko paisaiak, Erdi Aroan, antza gutxi zeukan egungoarekin. Garai hartan, Urolak eta haren ibaiadarrek estuario zabala eratzen zuen Talaimendi, Basustagaña eta Zumaiegi mendien artean. Ibaiek ekarritako ura itsasoaren fluxuekin nahasten zen, eta mareen erritmoan urpean edo agerian gelditzen ziren hondartzak eta basadiak eratzen zituzten, Santiagoko ermitatik Oikiaraino eta Narrondoraino. Padura horiek

herri lurrak ziren, eta bizilagunek askatasun osoa zuten bertan era askotako baliabideak ustiatzeko: arrantza, ostra zein izkiren bilketa, baita ihien mozketa ere, simaurra egiteko.

Zumaiako hiribildua, beraz, paduraz inguratutako lurmutur batean eraiki zen. Hegoaldean Odieta eta Ubea izeneko basadiak zeuzkan, Narrondorantz zihoan Errege Bideak zeharkatuta; denborarekin, errebal txiki bat garatu zen bidearen bi aldeetan, Torreberri inguruan. Hiribildutik iparrera, berriz, Ondartxoko eta Arrangoletako padurak zeuden, eta bertan zenbait ontziola. Horrez gain, Ardantza errekek ere hemen isurtzen zituen bere urak, egun Amaia plaza dagoen inguruan; puntu honetan zegoen herriko marea errota, eta hari lotuta Zubiaurreko errebala. Portu funtzioak egungo Erribera kalean kontzentratzen ziren, garai hartan ibaiertza hortxe baitzegoen.

Marea fluxuen arabera aldatzen zen paisaia horrek osatu zuen Zumaiaren oinarria hainbat mendez. XVIII.ean, aldiz, itsasadarren itxura guztiz itxuraldatuko zen, basadi gehienak lehortu eta haien gainean polder edo **erriberak** eraiki zirenean, herriko laborantza lurrak zabaltzeko. Egungo Zumaia ezin da ulertu aldaketa horiek kontuan hartu gabe.

Paisaia berri bat

Itsasadarreko basadiak lehertzeko lehen proposamenak 1709an egin ziren. Hala ere, proiektua tratatuta egon zen hainbat urtez, eta 1792an baino ez zuen aurrera egin. Urte hartan, Zumaiako Udalak eskaera aurkeztu zion Karlos III.a erregeari, basadiak lehortu eta jabe pribatuei saltzeko baimena eman zezan.

Agiri horretan azaltzen denez, Urola inguruko basadiak urpean gelditzen ziren itsasgoran, eta horregatik “antzu eta erabilgaitz” jo zituzten ordura arte; baina, herrian laborantza lurrak oso eskasak zirela ikusita, Udalak “dikeak eta bestelako

defentsak” eraiki nahi zituen haien inguruan, ur gazia sartzea oztopatu eta nekazaritzarako lur berriak lortzeko, beste herri batzuetan egiten ari ziren moduan. Baimena 1793ko irailaren 3an iritsi zen, eta Jose Antonio Artzadun ingeniariari eman zioten proiektua diseinatzeko ardura. Lanak ordaintzeko dirua herriko bizilagun aberatsek aurreratu zioten Udalari, hurrengo urteetan drainatzera zihoazen lur berrien zati baten errentak jasotzearen truke.



Egitasmoak guztiz itxuraldatu zuten Urolako itsasadarra

Lehenik eta behin, beharrezkoa izan zen Arroaerreka (Narrondo) kanalizatzea. Bitarte baserritik behera, erreka horrek bihurgune ugari eratzen zituen paduren artean, eta itsasgoran urak hartzen zuen inguru osoa. Hori saihesteko, kanal lerrozuzen bat induskatu zen Kantera baserriaren eta Odietako errebalaren artean; kanalaren bi ertzak malekoiz indartu ziren, eta Zubitxikia eraiki zen haren gainean, herrigunea Oikiako bidearekin lotzeko.


Ondoren, Urola eta Arroaerreka inguruan gelditzen ziren basadi guztiak egonkortzeari ekin zioten. Egitasmo nagusia Urolaren ezkerraldean kokatutako sailak lehortzea zen, Usurbiribillagatik hasi eta, Basusta mendia inguratuz, Kantera baserriraino zihoazenak. Hala ere, beste hainbat parajetan ere egin ziren lanak: Ubean, Odietan, Bonbillon, Jadarren, Basabeltzen, Bitarte eta Narrondotorre baserrien artean, eta Bedua inguruan. Prozesua gauzatzeko, honako elementuak eraiki ziren:

- Dike edo lubakiak. Paduren inguruan eraikitako lur muntoak ziren, itsasoko ura barrura sar ez zedin. Dike horiek itsasgoran urak hartzen zuen maila baino bi oin garaiago izan beharko zuten, eta altuera hainako lodiera eduki. Gainera, kanpoaldean harrizko hormaz indartu beharko ziren, urak eragindako higadura gutxitzeko.
- Drainatze zangak. Basadiak itsasadarreko uretatik isolatu ondoren, haien barnean zanga edo ubide sare bat irekitzen zen, euri urak kanalizatu eta lursailetik kanpora bideratzeko.
- Tronpak. Dikeetan irekitako uhate edo konportak ziren. Haien funtzioa uhateek bideratutako ura jaso eta, itsasbeheran, Urolarantz ebakutzeko zen. Aldi berean, diseinu berezia zeukaten,

Zumaiako basadien ikuspegia, drainatzearen ondoren. ZUMAIKO FOTOTEKA



Basadizarreko lurretan lagina hartzen.



Urdinez: ur masak.
Zuriz: hondartzak.
Berdez: basadiak.
Horiz: basadietako irabazitako lurak.
Morez: urbanizatutako lurak.

preziatuenak bilakatu ziren, paduretako sedimentuen emankortasunari esker. Bertan artoa, barazkiak eta fruta arbolak lantzen ziren, baita aberentzako belarra ere. Lubakien, zangen eta tronpen mantentzea auzolanean egiten zen, lursailen jabe guztiek osatutako batzorde batek kudeatuta.

Hala ere, lur horiek lehor mantentzeak ere bere lana zekarren. Izan ere, marea bizietan edota ekaitz handiren bat gertatzean, itsasoak bere espazioa berreskuratzeko joera erakutsi zuen behin baino gehiagotan. 1816an, adibidez, enbata batek dikeak hautsi zituen Pikariaga eta Puntanoeta izeneko parajeen artean, eta lursailak urpean gelditu ziren berandu gabe. 1820an Vicente Etxezarreta alkate ohiak bere poltsikotik ordaindu zuen dike eta zangen berreraikuntza, eta aurrerantzean brontzezko tronpak ezartzeko agindu zuen. Ordutik, paraje horiei Basadiberria deitu zitzairen; osorik mantendu ziren Usurbiribillagako alorrek, berriz, Basadizarra izena hartu zuten, eta horrekin dira oraindik ezagunak.

Egungo Zumaiaren oinarrian

Basadien drainatzearen historiak argi islatzen du Zumaiak Urolako itsasadarrarekin izan duen harreman estu eta, aldi berean, aldakorra. Herbeheretako, Britainia Handiko edota Frantziako polderrekin gertatu zen bezalaxe, hemen ere nekazaritzarako espazio berriak lortzeko beharra izan zen itsasadarrari lurak hartzea eragin zuen faktore nagusia, eta ordura arteko ustiapen estentsiboak (arrantza, ostra edo izkira bilketa, ihi mozketak)

kanpotik zetorren ura blokeatu eta itsasgoran basadiak lehor mantentzeko.

Basadizar inguruan jasotako lur laginek argi eta garbi erakusten dute prozesu honek nola eragin zien paduretako sedimentuei. Mareekin batera periodikoki urpean gelditzen ziren lurak izatetik, sedimentu horiek etengabe lehor egotera pasatu ziren, eta osagai organikoak galdu zituzten. Gainera, laborantzari lotutako zenbait praktikak (goldatzeak, ongarritzeak, kareztatzeak eta abar) beren arrastoa utzi dute lurzoruen gainazalean, sedimentuen osaeran eta testuran argi ikusten denez.

Lur berriak 1794an saldu ziren. 1796an lehen alorrek banatu ziren, eta 1800erako jada basadi guztiak baratzez estalita zeuden. Berandu gabe, Basadietako erriberak Zumaiako laborantza lur

ordezkatu zituen. Baina, aldi berean, prozesu hori dago egun estuarioak daukan itxuraren oinarrian, azken mende eta Erdiko hedapen urbano eta industrialerako espazioa sortzea ahalbidetu baitzuen.

XIX. mendearen amaieraz geroztik, Basadietako nekazaritza ustiapena beste erabilera batzuen mesedetan desagertzen joan zen. 1884an, Getaria-Zumaia errepidea ireki zen, Santiagoko padura eta Basadiberria Zubiaundi izenekoaren bidez lotuz. 1901ean, berriz, trenbidea iritsi zen Zumaiaara. Ondorengo hamarkadetan, bi azpiegitura horien inguruan eraikin berriak altxatzen joan ziren (etxeak, tailerrak, portuko lonja, tren geltokia eta abar); horixe izan zen Patxita Etxezarreta kalearen sorrera unea, eta Basadiberrien urbanizazioaren abiapuntua. Egun, antzinako baratzeak guztiz desagertuta daude, Basadi, Aita Mari eta Alai auzuneek ordezkaturak.

Hala eta guztiz ere, han eta hemen sakabanatuta badira Zumaian basadien lehortzeari lotutako polder paisaia berezi haren arrastoak: Narrondotorre eta Bitarte baserrien inguruan, Beduako irlan eta, batez ere, Basadizarrean. Bertan, Usurbiribillagako irlek osatutako padura naturaletik metro gutxira, lau hektarea inguruko erribera bat kontserbatzen da oraindik, lubaki perimetral batek itxita eta zanga sistema erradial baten bidez drainatuta. Garrantzi historiko nabarmena duen eta Zumaiaiko ondare kulturalaren parte den elementu ezezaguna, inondik ere. ■

**ITSASADARREKO
BASADIAK
LEHORTZEKO LEHEN
PROPOSAMENAK
1709AN EGIN ZIREN**

**ARTOA, BARAZKIAK
ETA FRUTA ARBOLAK
LANTZEN ZIREN, BAITA
ABEREENTZAKO
BELARRA ERE**



ZUNTZ
OPTIKOA
ZUMAIA

Badator zuntz optikoaren herri sarea. Auzo guztietara zabaldutako sare berri honi esker, ohiko operadore handiez gain, tokiko operadore txikiek eskaini ahal izango dute zerbitzua. Abiadura handiko konexioa izango dugu zumaia guztiok, eta hileroko kostua gutxitzeko aukera izango dugu.



labur.eus/ZOZ



zoz@guifi.net



656 511 916

guifi-net

Zumaia Udalak



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

Bidean ahaztuak



TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA

@ImanolAzkue

Lagunak bazekien zenbateraino interesatuko zitzaidan, eta whatsapppe bidali zidan mezua, argazki eta guzti: “Kontzentrazio esparruetara deportatutako bidasotarren erakusketa batean zumaia bat ere ageri da...” Argazkian, gizonezko bat, Tomas Zubizarreta Lazkano.

Etxean, begiratu dut Zumaia Udalak ateratako Zumaia 1936-1945 liburuan, eta ez dut aurkitu haren izenik; bai, ordea, bi anai-arrebarena, Jose eta Rafaela, biak ere errepresaliatuak: Jose tren geltokiko langilea zen, eta lanpostua galdu zuen; Rafaelak, berriz, alde egin zuen frankistak herrian sartu baino lehen, ez zen itzuli 1937ko apirilaren 2ra arte, eta frankistek “procedente del campo rojo” etiketa jarri zioten.

Kepa Ordoki elkarte

Eskertu diot lagunari mezua, eta eman dit informazio gehiago lortzeko bidea. “Kepa Ordoki Memoria Historikoa Bidasoan” erakusketan ageri da Tomasen fitxa.

Elkartearen webguneko testuan, berriz, informazio gehiago dator: Asturiasko 1934ko urriko gertakarien ondorioz iheslariei Frantziarako bidean laguntzeko, Irungo Alderdi Komunistak azpiegitura

zeukan, eta Tomas Zubizarreta zen azken kate begia haiek mendiz Iparraldera eramateko; eta Frantziako erresistentziarekin aritu ondoren, atxilotu eta 1944ko maiatzaren 21ean Compiègneko (Frantzia) presondegira eraman zuten.

Fitxan aitatzen da, baita ere, Orosia Ordokiren bikotekidea zela Tomas, eta beste artikulua baten bidez jakin dut Kepa Ordokiren arreba zela Orosia. Keparen bizitza nahikoa ezaguna da: Irunen jaioa; lanbidez, igeltseroa; ANV/EAeko militantea; 1936ko Gerran Gipuzkoan, Bizkaian eta Kantabrian ibilia, kapitain gradura ere iritsia; heriotza zigorrera kondenatua eta El Duesoko kartzelatik ihes egin;

Frantziara erbesteratua; Gursen preso egona, eta handik ere ihesi joana; Erresistentziarekin ibilia; Gernika Batailoia berru alemaniarren aurka aritua... Orosiari buruz jakin dudana laburragoa da: Nazioarteko Sorospen Gorriko¹ buru izan zen eta Palma Mallorcakoan preso eduki zuten, bitan fusilatzen zutelako itxura egin zioten, tiro eta guzti, baina balarik gabe, eta gero Ondarretako eta Saturrarango presondegiara ekarri zuten; zazpi urte egin zituen preso.

Harremanetan jarri naiz Kepa Ordoki Elkartekoekin, eta material osagarri gehiago bidali didate, epaitegiak agiri batzuk: Orosia Ordokiren amaren aurkako sumarioa, Tomas Zubizarretaren aurkako

ZENBAIT KASU

Algunos casos · Certain cases



TOMAS ZUBIZARRETA LAZCANO

Zumaian jaio zen 1907ko apirilaren 15ean eta Bergen-Belsen kontzentrazio esparruan hil zen 1945eko otsailaren 10ean. Irungo Alderdi Komunistako militantea izan zen eta Orosia Ordokiren bikotea. Biak heriotza zigorrera kondenatuak izan ziren. Euskal Herriatik ihes egin zuen 1938an eta Bigarren Mundu Gerran Frantziako erresistentzian parte hartu zuen. 1944ko maiatzean atxilotu eta Neuengammera deportatu zuten. Handik Bergen-Belsenera eta han hil zen.

Tomasen fitxa erakusketan.

akusazioa... Luisa Vázquez Zugasti zen Kepa eta Orosiaren ama, eta haren aurkako sumarioan alaba eta suhia aitatzen dira: “una de las cuales [Orosia], ausente en ignorado paradero, fue presidenta del Socorro Rojo y amante de uno de los mayores asesinos de la ciudad fronteriza, el cual vivía en casa de esta procesada durante el dominio rojo, se distinguió durante el mismo levantando el puño y por sus provocaciones marxistas”². Beste agiri batean, Irungo alkateak Tomasen gaineko informazioa ematen dio fiskalari, eta zehazki: “actuaron en la ronda encargada de la detención de las personas de derecha (...). En cuanto a los asesinatos cometidos sabemos que Zubizarreta intervino en la muerte de una persona desconocida, perpetrada en el Cementerio de esta ciudad”³. Beste agiri batean, Irungo poliziarnean, Tomasen izena azaltzen da; Uranzu kalean bizi omen zen, eta hilda azaldu zen pertsona haren atxilotetan parte hartu omen zuen: “fue uno de los que procedieron a la detención de dicho Señor, no habiéndose podido comprobar si el citado Tomas realizó el asesinato, aunque es creencia que fue uno de los que intervino en el mismo, actualmente se ignora su paradero ya que unas personas manifiestan que se encuentra

en Francia y otras dicen que se suicidó a la entrada del Puerto de Pasajes”⁴.

Zumaian

Zirikatzea bezalakorik ez dago, eta hasi naiz inguruan galdezka eta Interneten begira, eta laster lortu dut informazio gehiago Tomasen gainean. Horrela, 1934ko hautesle erroldaren bidez⁵, jakin dut Zubizarreta Lazkano familia Kale Nagusian (garai hartan Ignacio Zuloaga) bizi zela, 8 zenbakian (Antonenekoa izeneko etxean); aitarekin (Jose Agustin Zubizarreta Artetxe), bi anaia ageri dira: Jose, 29 urtekoa, enplegatua; eta Tomas, 25 urtekoa, arotza. Rafaela arreba, berriz, 23 urtekoa, beste helbide batean ageri da erroldan, Etexzarreta kaleko 15ean. Gero



Antonenekoa etxea, Kale Nagusia 8an.

jakin dut Hotel Urangako seme batekin ezkondu zela.

Interneten

Interneten hari batzuk aurkitu eta bati heldu diot. 1940ko irailaren 17an, “Tribunal de Responsabilidades Políticas de Navarra” izenekoak sententzia atara zuen: Tomas Zubizarreta, obra kontratista eta Irungo bizilaguna, ondasun guztiak galtzera eta 15 urterako Afrikan erbesteratzerako kondenatu zuen. Arrazoiak hauek: Irungo Alderdi Komunistako afiliatua eta sortzailea izatea, Nazioarteko Sorospen Gorriko kide izatea, Mugimendu Nazionalaren aurka nabarmen agertzea jendearen aurrean pistolarekin, Mugimendu Nazionalarekin bat egiten zuten pertsonak atxilotzea eta haiek juzgatzeko

¹ Nazioarteko Sorospen Gorria: Internacional Komunistak 1922an eratutako nazioarteko gizarte zerbitzua, Gurutze Gorriaren antzekoa, baina inolako erakunde edo sinesmen erlijiosorekin zerikusirik gabea. 1947an desegin zen. .

² Kepa Ordoki Elkarrekin utzia, 12-016, 1945-01-29an.

³ XKepa Ordoki Elkarrekin utzia, 15-013, 1941-11-03an.

⁴ Kepa Ordoki Elkarrekin utzia, 15-040, 1943-04-28an. Hemendik hartua: <http://pares.mecd.gob.es>.

⁵ Hemen: <http://oinati.gipuzkoakultura.net/eu/berriak/201.html>.



Jesus Maria Leizaola, Iñaki Anasagasti eta Hilario Zubizarreta elkarrekin, Lizardiren omenaldi batean. *DEIA EGUNKARIA*

Herri Epaitegian parte hartzea, *Euzkadi Roja* egunkaria saltzea, armada nazionalak iritsi behar zuenean Frantziara alde egitea eta atzerrian bi hilabete baino gehiago egotea.

Internetek Tomasen beste anaia baten berri eman dit: Hilario. Ez da azaltzen 1934ko erroldan gazteegia zelako artean bozkatzeko, 1917an jaioa, baina badago zer kontatua haren bizitzaren gainean: lanbidez doitzalea (ajustadorea) zen, eta sarjentu ibili zen Gernika Batailoian (Kepa Ordokirekin batera), erbesteko Eusko Jaurlaritzaren ekimenez 1944an sortu zen taldean, aliatuen alde Frantziar borrokatzen; gero, Euzko Gudarosteko beste gudari batzuekin batera, entrenamendu militarra jaso zuen Parisen kanpoaldean, eta Nafarroako mugako zenbait ekintzatan hartu zuen parte, taldea desegin zen arte; Ainhoan eta Bidarten bizi izan

zen, gero Donibane Lohizunen, eta arma fabrika batean aritu zen lanean, erretiroa hartu arte; EAJ/PNVko militantea zen, eta alderdirako lan ugari (batzuk isilpekoak) egin zituen; 1974an, Gernikan Aberri Eguna zela eta, Leizaola lehendakariari lagundu zion klandestinitatean hara joaten beste gudari ohi batzuekin, eta politikan aritu zen Ipar Euskal Herrian, hil zen arte, 1997an.

Beste hari bat ere aurkitu dut Interneten, oso emankorra, Euskal Memoriala webgunean; izan ere, kontzentrazio esparruetara deportaturiko euskaldunak zirela eta, datu gehiago ageri dira Tomas Zubizarretaren bizitzaz. Lau anai-arrebatatik bigarrena zen eta Gerra Zibilean alde egin behar izan zuen; ideologia komunistakoa zen, eta mitinak ere eman zituen Espainiatik kanpo. Hogei urte zeuzkanean jaioterria utzi zuen, preso egon zen Frantziar eta ezer gutxi

dakigu orduan gertatutakoaz, salbu eta Bergen-Belsen (Alemania) kontzentrazio esparruan hil zela 1945ean. Frantziako dokumentazioaren arabera, lanbidez arotza zen, eta Donostian komisario politiko aritu zen, Altxamendua gertatu zenean; 1938an, Ipar Euskal Herrira alde egin zuen; han, Bokalen (Lapurdin), bizileku zuen etxean, bonba batzuk lehertu ziren ustekabeen eta Tomasi egotzi zioten errua. Hilario anaiarekin oso tarteka izan zuen harremana gutunen bidez, biak Ipar Euskal Herrian egonagatik. II. Mundu Gerra amaitutakoan, Hilario ahalegindu zen anaiaren arrastoren bat aurkitzen, baina ez zuen ezer ere jakin. Hori guztia eta gehiago azaltzen du elkarriketa batean Arritxu Uranga Zubizarretak, Tomasen ilobak, eta akordarazi nola zegoen familia, sakabanatuta: anaia zaharrena, Jose, Pasaian; beste bi anaiak erbesteratuta; eta arreba, Rafaela (Arritxuren ama), Zumaian; Gerra ondorena gogorra izan zen hemen, *mugaz* beste aldean ere II. Mundu Gerra lehertu zen, komunikazioa ez zen batere erraza... Arritxuk ezer gutxi zekien osabaz, desagertu egin zela besterik ez, eta zekien apurra Hilario osabaren bidez jakin zuen, eta esaten omen zion seguru zegoela anaia labe batean sartu eta erre egin zutela, inon ere ez zuelako atera haren arrastorik. Baina bizitzak

buelta asko ematen ditu, eta Hilario hil eta urte batzuetara jakin zuten Arritxuk eta familiak osaba Tomasen berri, 2010ean



Tomas Zubizarreta Lazkano.

Pilar Pardo ikertzaileak albistea eman zienean: erregistro ofizialen arabera, atxilotu ondoren, 1944ko maiatzaren 21ean Tomas Compiegnoko kartzelara eraman zuten, gero Neuengammera (Alemania) deportatu zuten eta handik Fargera, Bergen-Belsenera (Alemania), eta han hil zen 1945eko otsailaren 10ean.

Interneteko beste lotura batek ETB2ko programa batera eraman nau. Klaudio Landa aurkezle, Arritxu Uranga eraman zuten programara 2015eko urtarrilaren 27an. Arritxuk osabaren gutunak eraman eta erakutsi zituen, Hilario anaiari idatzitakoak, eta beste zenbait kontuz ere aritu zen: isiltasun behartuaz, historia eta istorio batzuen

inguruko iluntasuna, alde egindako batzuen arrasto galdua eta ezabatua... Beste bideo batean ere aurkitu dut Arritxu hizketan, EDE Centro del Conocimientoaren gunean, osabaren gaineko azalpenak ematen, eta Tomasen argazki bat ere ikusi dut.

Noticias de Gipuzkoa egunkariaren artikulua bat ere topatu dut, ahaztear dagoen memoria berreskuratzearen garrantziaz eta Tomasen kasuaz, berriz ere Arritxu ilobak kontatuta. Bereziiki pozgarria izan da Zubizarreta Lazkano familia osoaren argazkia dakarrelako: gurasoak eserita eta seme-alabak zutik, zaharrenetik gazteenera, haien atzealdean.

Begiratu diot arreta handiagoz orain arte ustez Tomasenatzat neukan argazkiari, erakusketako fitxakoari, eta konturatu naiz datuak Hilarioarenak direla, izena eta Gernika batailoia ere jartzen duelako, eta pentsatzekoa da argazkia ere harena izango dela.

Azkenik, Internet bidez beste hari batzuk ere aurkitu ditut. Alde batetik, 1936ko Gerrako Rosa Luxemburgo komunisten batailoien gaineko blog batean, han ageri da Tomas Zubizarreta Lazkanoren izena, gudarien zerrendan, baina bestelako xehetasunik gabe. Bestalde, *El PCE en los orígenes*



Zubizarreta Lazkano familia. Erdian zutik, Tomas. NOTICIAS DE

GIPUZKOA



“CARTE D'ADHÉRENT” edo Gernika Batailoiko kide izatearen egiaztatzea.

del Franquismo (1939-1945) liburuan, Tomasen izena aitatzen da, 1938ko udaberrian Bokalen (Lapurdi), laguntza ematen, PCE alderdiak ahalegina egin zuenean Espainiatik Frantziara militantek isilpean eramateko sarea antolatzeko.

Ahaztuak

Lagunaren whatsapp mezutik abiatuta, iraganeko hariei heldu eta saiatu naiz soka txirikordatzeko, lehengo pasadizoei tiratzen eta gurera ekartzen. Zer pentsatua eman dit: dagoeneko ahalegin handia eginda dago garai hartako kontuak ezagutzeko eta gordetzeko (hor dago, adibidez, Zumaia Udalak ateratako *Zumaia 1936-1945* liburua, gero eta herrenagoa), baina bistan da ez dela nahikoa, oraindik ere historia eta istorio asko daudelako jasotzeko edo argitzeko, bazterrean eta ahaztuak, eta ezin esan lanak amaituta daudenik; kontu

haietako asko ez ditugu ezagutzen eta protagonistak desagertu ahala bazterrean geratzen ari dira, lausotzen, ezkutatzeko, eta gu horiek

guztiak galtzen. Balioko ahal du idatzi honek Tomasen izena akordarazteko eta haren antzeko beste batzuk argitaratu ekitzeko.

Loturak edo helbideak:

- Bidasoko Deportatuak Erakusketa ibiltaria: <https://kepaordoki.wordpress.com/2639-2/>
- *Deia* egunkarian, “Quince años sin un histórico del PNV”: <https://www.deia.eus/actualidad/sociedad/2012/07/10/quince-anos-historico-pnv/232341.html>
- EDE, Centro del Conocimiento, Arritxu Urangaren elkarrizketa: <https://vimeo.com/62683736>
- *El Diario Vasco* egunkarian Orosia Ordokiren berria: <https://www.diariovasco.com/bidasoa/irun/asociacion-kepa-ordoki-20190728002709-ntvo.html>
- *El PCE en los orígenes del Franquismo (1939-1945)*, Carlos Fernández Rodríguez: <https://labur.eus/VpS4L>
- ETBko “Si ir más lejos”, Arritxu Uranga Zubizarreta: <https://www.eitb.eus/es/television/programas/sin-ir-mas-lejos/videos/detalle/2921140/video-historia-vasco-murio-campo-concentracion/>
- Euskal Memoriala: http://www.euskalmemoriala.net/es/?page_id=482
- *Gara* egunkarian, “Vascos víctimas de los nazis y del olvido”: <https://gara.naiz.eus/paperezkoa/20100620/206005/es/Vascos-victimas-nazis-olvido>
- Hautesle errolda (1934) kontsultatzeko: <http://oinati.gipuzkoakultura.net/eu/berriak/201.html>
- <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/actualidad/sociedad/2013/02/27/memoria/251933.html>
- Kepa Ordoki elkarte: <https://kepaordoki.wordpress.com/>
- Kepa Ordokiren bizitza: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/fr/ordoki-vazquez-kepa/ar-111291/>
- Nafarroako epaitegia (sententzia): <https://labur.eus/2tica>
- *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian, “Memoria de regreso”: <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/actualidad/sociedad/2013/02/27/memoria/251933.html>. ■■■



Endañetazumaia

ENDAÑETAK
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21



ZUMAIA TXARTELA

**ERABILI ZUMAIA TXARTELA
ZURE ORDAINKETAK EGITEKO**

- Ordaindu hiru hileko epean
interesik gabe
- Deskontuak, sariak, zozketak...
- Txartela doan da

*Gertu bizi,
gertu erosi*

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

SOLOZABAI
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Talaira
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70

Talaira
Taberna

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA

Izurtari, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloak)
Saltxitxak, oilaskoak...
Garagardokoak aukeran

Ondartxo plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 • 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 • 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97

BIYONA
BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldeak
bainugela ...
leihoak etxeko altzariak
eraberritzekotan?

Bisita gaitzazu

Santiago auzoa, 12 • ZUMAIA • 943-14 34 43 • www.biyona.net

AGENDA

URTARRILA

4 ASTELEHENA

Ipuin kontaketa: Goizean porrusalda, eguerdian azak, Ixabel agirresarobe (4-8 urte).
Oxford aretoan, 11:00etan.

7 OSTEGUNA

Kontzertua: Laboa Jazz Sextet, Iñaki Salvador.
Aita Marin, 19:00etan.

14 OSTEGUNA

Zine forum saioa: Ostarrenaren eskutik.
Aita Marin, 19:00etan.

22 OSTIRALA

Kontzertua: Liher.
Zumaienan, 19:00etan.

24 IGANDEA

Haurrentzat antzerkia: Kotondarrak, Anita Maravillas.
Aita Mari, 12:00etan.

28 OSTEGUNA

Zine forum saioa: Ostarrenaren eskutik.
Aita Marin, 19:00etan.

30 LARUNBATA

Antzerkia: Konpromisoa, Txalo.
Aita Marin, 19:00etan.

*** URTARRILA AMAIERAN:**
Jabekuntza eskolako ikastaro berriak [Emakumeon* etxea]

OTSAILA

4 OSTEGUNA

Dantza: Gauekoak, Kukai dantza taldea.
Aita Marin, 19:00etan.

5 OSTIRALA

Antzerki gaztea: Porno versus Afrodita, Benetan be.
Aita Marin, 19:00etan.

11 OSTEGUNA

Zine forum saioa: Ostarrenaren eskutik.
Aita Marin, 19:00etan.

14 IGANDEA

Ikuskizuna: Inauteriak Pirritx, Porrotx eta Marimotos.
Zumaienan, bi saio.

18 OSTEGUNA

Hitzaldia: URVAL ENSEMBLE, Gorka Hermosa eta Jon Maia: *Urolatik Barrena.*
Aita Marin, 19:00etan.

19-21

Klarinete Maratoia II.

25 OSTEGUNA

Zine forum saioa: Ostarrenaren eskutik.
Aita Marin, 19:00etan.

yoana ✂
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78




Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com

Zalla 

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urdia Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA


ZUMAIA 

AUTOESKOLA

Basadi, 12 / 943-86 10 18 / zumaiaautoeskola@hotmail.com



Umorez eta intrigaz jositako memoria ariketa



Nobela errealista bat

Egilea: Joxean Agirre
Argitaratzailea: ELKAR
Argitaratze urtea: 2020
Orrialdeak: 198
Generoa: Narrazioa



TESTUA: ANTIXON PEÑALBA

Nobela errealista bat Joxean Agirrereren 10.a dugu. Bi pertsonaia nagusi ditu, biak ala biak koldar samarrak, besteen bizitzatik elikatzen diren horietakoak, idazlearen hitzetan. Alde batetik, Loiuko aireportuan lan egiten duen taxizalea eta istorioaren narratzailea. Gizon heldu letrazale adarduna, neska gazte erakargarri baten atzetik dabilena, “entziklopedia” moduko bat du buruan eta Frankismoko azken bi hamarkadetako “euskal erresistentziaren” bizipenak eta bitxikeriak umorez eta ironiaz kontatzen dizkie bezeroei, duten itxura eta helmugaren arabera. Nolako bezeroa, halako pasadizoa edo istorioa.

Bestetik, Agirrezabal idazle zarauztarra, taxizalearen emaztearen maitalea. Bere estiloa modatik urruti dagoenez, arrakasta handirik ez duela-eta, argitaletxeak nobela errealista bat idazteko agindua emango dio. Eskaerari jarraituz, taxizalearen emazteak kontatutako hainbat

pasadizotatik hasi eta Mikel Lejartza *El Lobo* ETAn ibilitako satorraren bizitzaz idazten hasiko da, eta horrek ondorio latzak ekarriko dizkio.

Nobelak azpian bi nobela bezala ditu. Lehenengo 60 orrialdeetan pasadizoei hartzen dute zatirik handiena, baina, hortik aurrera, garai honetan hain modakoa den nobela beltz baten tankera hartuko du narrazioak. Taxizaleak, laguntzaile emakume gazte, eder, ausart eta liraina duela, Agirrezabal nork hil duen argitu beharko du, sasipolizia baten lanean. Matriuska batean bezala, ofizio eta kalitate handiz ahokatuko ditu pieza guztiak. Ezin hobeto erakutsiko du nolako trebezia daukan hainbat trama josteko,

NARRAZIOAREN BARRENEAN IRAKURLEAK HAMAIA GOGOETA AURKITUKO DITU

gure historia hurbileko hainbat istorio txundigarri aletzeko eta ironia dosi oparoak banatzeko.

Eta narrazioaren barrenean irakurleak hamaika gogoeta aurkituko ditu. Ironia eta umore handiz egindako gogoetak, hain zuen ere. Hor izango ditu idazleak gogoan literaturaren efikazia politikoa eta oihartzuna, gaurko euskal literaturaren modak, idazleen egoera, literaturaren negozioa, sexu tentsioak eta hor, halaber, nobelan zehar sexuarekiko obsesio jostalaria. Dena sentsualitate handiz eta hizkuntza dotorean adierazita.

Idazle eta kazetariak bere betiko ezagugarriak eutsiko die oraingoan ere, hau da, sentsualitatea, metaliteratura eta idazkeraren dotorezia.

“Nik irribarre txikiak eginez idatzi nuen eta uste dut irakurleak ere barre batzuk eginez irakurriko duela”, adierazi du idazleak, egin dioten elkarrizketa batean. Hala bedi! Negu garaiko ekaitz egun hotz eta tristeak samurtzeko aukera paregabea dugu Joxean Agirrereren *Nobela errealista bat* hau. ■

Kilkerrak, txanpiñoiak eta kareluak



LEIRE ARANO

Atxagari irratian bezala, *autopistan kilker bat* izatea egokitu zait txoko honetan; albo, gain, azpitik ziztuan pasatzen diren gertaeretan bereizte lana egitea eta zeri ahotsa eman aukeratzea. Atxagak zeruan konbokatzen zituen solaskideak, eta niri etxeko lanetan nabilela azaldu zaizkit kilkerrak, badutela zer esana eta zurian beltz agertu nahi luketela; entzun-irakurritako azken hiruzpalauak bakarrik oroitu ohi ditudalako edo, horiexek.

Arropa esekitzen ari naizela, kir-kir, deika kilker bat. Ander da, abuztuko bero itogarrian ere traje-gorbatei uko egin nahi ez dien business gizona. Atzo kontatu zidan Jaiok, *zu [eta ni] bezain ahul* diren hainbaten istorio aspaldi idatzietan, txikitan aitari galdetu zeniola, Ander, ea potoan sartutako kilkerrak zergatik kantatzen duen ardoarekin. Kristalezko ontzi baten barruan bakarrik dagoela ahazten duelako, esan zizun aitak. Eta zu ere poto barruko kilker sentitu zara, tabernako barran bakarrik whiskia eskuan, businessen mesedetan seme-alabak urrun dituzula, haien zaintza amaren ardurapean lagata.

Poto barruko kilker... eta txanpiñoi ere bada, esan dit belarrira Mariak, tabernara jaitsi baino 10 minutu

lehentxeago Anderri hoteleko gelatik alde egin dion prostitutak. Mariak ahaztua zeukan Perez Orozcori ikasitako kontzeptua, langile txanpiñoia, soldatapeko langile ideala, egunero lan merkatura abiatzen dena, sabela beteta, arropa garbi eta lisatuta, zaintzaren arloko ardurarik hartu gabe, lan merkatuan 24 orduz prestutasun osoz aritzeko. Ahaztua zeukan, baina berritu egin zaio Sagastizabalek zaintzaren, enpleguaren eta militantziaren *hiruki gatazkatsua* seinlatu dionean. Ander langile txanpiñoia da, eta Maria militante txanpiñoia, iraultzaren alde ordu guztiak militantziari eskaintzen dizkion ama txarra. Beharko!, kexatu zait; bestela nork bistaratuko du, ba, prostituzioko langile garenon egoera gorria! Autopistako zaratan entzuten ez den beste kilker bat. Oraintxe badu hara-hona joateko aukera, lan pixka bat egiteko sikiera, azkenaldian mareak behera eta behera besterik ez baitu egin bere kontuko korrontean. Ezinbesteko jarduerak? ERTEak? Erantzukizunpeko adierazpenak? Ai, *gauzak direna balira!* Ez da hala, Sarri? Gauzak gibelka jarri eta kantatuko dugu “*C’est la vie*”, Zabala? Eta hara, irratian, merengea baino azukretuago, “Ez negar egin, gu elkarrekin” kantua. Elkarrekin? Eta gu? Zein

gu? Gu guztiok? *Turista klasean* goazen den-denok?, sumatu uste izan dut Miner galdezka.

Oraindik ez zaituztet irakurri; japoniarrek esaten duten bezala, *tsundoku* zarete, irakurtzeko esperantzaz ohe ondoan jarritako liburu piloa, logela kilker hotsez bete dadin edo... DA! izan baita. Euskararen langile diren sortzaile beti militanteak agertokirik gabe geratu diren honetan, plazako kir-kir hots jendetsurik ez aurten, pantaila aurreko klik-klik hots bakartuak baino ez. Eta zer esango dizuet, ba!? Lehendik ere telelanean nenbilela harrapatu nau ditxosozko tsunami honek, ordu asko bakarrik, ordu asko klik-klik pantaila aurrean. Tulu hizkuntzan *karelu* esaten omen diote zerbait oso estu jantzita izateak soinean uzten digun markari, eta kezkatzen nau azken hilabeteetan handik eta hemendik estutu diguten guztiaren kareluak sumatu ere ez egitea laster. Ni behintzat, gero eta txanpiñoiago nago, eta liburu ederrez mozkortuta, bai, baina gero eta kilker potokoago.

P.D.: Azken puntua jarri, eta Urkizak *paperezko ahozapietan idatzitako ipuin* bat pare-parean, neure burua, zer bestela, irakur dezadan: “Superbibentziarako denetik jaten ikasi zuen, baita bakardadea ere”. ■

Stan



JUAN LUIS ROMATET

Udazken-negu honetako auskalo zenbatgarren borraska dugun gainean. Azkenaldian izenak jartzen dizkiete denboraleei, aurretik urakanei egiten zieten bezala. Bost axola niri; nahikoa lan badut lankide batzuen aurpegiak eta izenak parekatzen, borrasken izenak gogoratzen hasteko.

Jaieguna dut. Gosaldut, platerak garbitu, prentsa irakurri, musika jarri, prentsarekin aspertu, txateatu, landareak zaindu, eguraldiak hobera egin duen begiratu, liburu bat eskuetan hartu, berehala utzi, komiki bat oso-osorik irakurri, musika gehiago jarri... Uda garaian Ikeatik erositako baldei esker diskoak orain ordenatuta dauzkat, eta nire kaos kontrolatuan badakit gutxi gorabehera disko bakoitza non dagoen. Azken erosketak alde batera utzi, eta disko zaharrak entzuten hasi naiz, 1980ko hamarkadakoak. The Housemartins talde britainiarraren diskoa hartu dut eskuetan; tokadiskoan jarri dut, eta denboraren makinara igo naiz.

Hiru hamarkada eta erdi egin ditut atzera. 15-16 urte nituen disko hau atera zutenean, beraien ibilbide laburreko bigarrena. Eta zenbat gustatzen zitzaidan talde hau! Uste dut bi diskoak kasetetan grabatuta izan nituela, garai hartan diskoak erosteko diru askorik ez nuen eta. Bigarrena badudanez, eta lehena ez, horren bila hasi naiz Interneten. Kopia asko daude salgai, baina auskalo zer egoeratan egongo diren, asko eta asko, gehienak, bigarren, hirugarren edo laugarren eskukoak direlako. Atzera egin dut; garai batean bigarren eskuko disko mordoa erosi nuen, baina garaiak ere aldatzen ari dira, Dylanek zioen bezala.

Eguraldiak ez du onera egiten, eta ordenagailu aurrean jarri naiz, taldearen garaiko bideoklipak ikusten. Katak onak ziren, freskoak, eta bideoklipak dibertigarriak. Bata bestearen atzetik jarri ditut, eta bat edo beste birritan. Nostalgia ate joka. Abeslariak beste talde bat sortu zuen, The Beautiful South, eta baxu jotzaileak elektronikara salto egin zuela Fatboy Slim bezala; bateria jotzailea, berriz, atxilotu egin zuten etxe bati su emateagatik. Baina gitarristarekin zer gertatu zen? Mutil onaren plantak zituen betaurrekodun harekin? Stan Cullymore zuen izena. Facebooken sartu dut bere izena eta aukera desberdinen artean bat klikatu dut: errietoako kanalen inguruko bideo batzuetan gizon bat agertzen da, 50 urteak ondo betetakoak, flakoa; ile gutxi eta zuria du; batzuetan betaurrekoak ditu, besteetan ez. Baina bai, bera da. Kazetaria lanbidez, haurren 120 liburu ere atera omen ditu urte hauetan guztietan. Ez dakit zergatik, baina lagun eskaera bidali diot, esperantza gutxirekin: zertarako nahiko ote du Ingalaterrako gizon heldu batek hizkuntza arraro batean idazten duen majadero baten laguna izan? Baina eskaera onartu du! Nire gaztaroan hainbeste gustatzen zitzaidan talde bateko gitarrista "laguna" dut orain! Toma! Eguna eginda. Eta kanpoan eguraldi txarrak jarraitzen du... ■■■

**GARAI BATEAN 2.
ESKUKO DISKO
MORDOA EROSI NUEN,
BAINA GARAIK ERE
ALDATZEN ARI DIRA**



The top half of the image features a photograph of a bar or restaurant counter. On the counter, there are several trays of food, including small sandwiches or pastries on sticks, and a plate of sliced tomatoes. In the background, there are shelves with bottles and a lamp. The text 'Idoia' is written in a large, white, stylized font, and 'ARDOTEZIA' is written in a smaller, white, sans-serif font below it.

Idoia

ARDOTEZIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86



Galdona

Denda:

Mendaro marinela, 1

943-14 33 46

Biltegia:

Jose Mari Korta industrigunea

Pab. A6.1, 2-5 mod.

943-86 11 17



The bottom half of the image shows the interior of a store, likely a hardware or industrial supply store. The shelves are stocked with various items, including boxes, containers, and tools. A person is visible in the background, possibly a customer or employee. The text 'Industriarako nahiz etxerako era guztietako material, tresna, pieza, eta osagarriak' is written at the bottom of the image.

Industriarako nahiz **etxerako era guztietako material, tresna, pieza, eta osagarriak**



ZUMAIAKO HERRI ESKOLA

EKOSISTEMA HEZITZAILEA

Eraiki zurea